Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Miren Jone Azurza Aristegieta

Donostia, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Matia kalean jaioa, gurasoak Antigua bertakoak zituen, jatorriz familia biak Igeldokoak izan arren. Aita maisua zen Groseko Biteri eskola publikoetan, eta ama telefonista izan zen ezkondu artean (lan horretara itzuli zen gerraostean, senarrari lana ukatu ziotelako). Bost senide ziren, bera bigarrena eta neska bakarra. 8 urtera arte etxean ikasi zuen Miren Jonek, amarekin, eta ondoren Lourdesko ikastetxean. Abertzalea izateagatik, aita errepresialiatua izan zen, eta horrek hankaz gora ipini zituen familiaren bizimodua eta ekonomia. Hala ere, senide guztiek izan zuten ikasteko aukera. Peñaflorida institutuan egin zuen Batxilergoa. 19 urterekin Gasteizera joan zen, Misiolari Sekularrekin, bokazio erilijiosoak bultzatuta, eta hainbat tokitan egon zen, besteak beste Avilan eta Madrilen, misiolari lanetan. Madrilen zegoela, Kazetaritza ikasteko aukera izan zuen. Hainbat aldizkaritan hartu zuen parte ("Vida nueva", "Impulso"...). 1965ean bueltatu zen Donostiara, eta Ethos argitaletxean hilabete batzuk egin ondoren, Zeruko Argia astekarian hasi zen lanean. Lehen emakume kazetari tituluduna izan zen euskarazko kazetaritzan. 1969tik 1975era izan zen zuzendari. Gero Historia ikasketak egin zituen, eta CCC-n zuzentzaile eta Michelin lantegiko aldizkarian egon zen lanean, Deia egunkarian lana egiteko deia jaso zuen arte. Azken urteetan Setien gotzainaren prentsa-burua izan zen.

Zintak

DON-193

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2020-07-03
- **Iraupena**: 38 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

DON-194

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2020-07-03
- **Iraupena**: 122 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Gerrako berri, irratiaren bitartez

- **Erref**: DON-193/004
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:02:06. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Gerra zibila hasi zenean, irratia entzuten zuten bazkalorduan.

2. Aitari maisu lana kendu ziotenekoa

- **Erref**: DON-193/006
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:03:44. **Bukatu**: 00:06:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:
Aita maisua zen eta gerraren ondorioz, eskolatik bota zuten, besteekin batera. Hortaz, lanik gabe gelditu zen. Oso gaizki gelditu ziren. Ama telefonista izandakoa zen eta lanari ekin zion berriz. Aitari ez zioten lanera itzultzen utzi.

3. Aitak Lapurdira ihes egin behar

- **Erref**: DON-193/007
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:06:26. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Txikitatik asko sufritu zuten. Frantsesez egiten zuten aitak eta amak elkarrekin eta pixka bat koxkortutakoan, seme-alabek ere ulertzen zuten. Aitaren lagun batzuk fusilatu zituztenean, aitak muga pasatu behar izan zuen.

4. Oso diru gutxi jantzietarako ere

- **Erref**: DON-193/008
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:12:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Oso urte gogorrak pasatu zituzten. Bere lehengusu bati txiki geratutako jantziak erabiltzen zituen. Anekdota bat kontatzen du, oso diru gutxirekin bizi izan zirela azaltzeko.

5. Aitaren bizimodua Jatsun

- **Erref**: DON-193/011
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:15:38. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Aitaren bi lagun fusilatu egin zituzten abertzaleak izatearren, eta aitak ihes egin behar izan zuen. Jatsun bizi izan zen. Han iheslariak bizi ziren eta haien umeen maisu jarri zuten. Janaria eta ohea ematen zizkioten trukean. Konturatzen ziren baina ume bat konturatzen den heinean.

6. Joxe Joakin, anaia, atxilotu eta erbestera

- **Erref**: DON-193/013
- **Iraupena**: 0:04:31. **Hasi**: 00:20:28. **Bukatu**: 00:24:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Bere anaia Jose Joakin elektrikaria zen; ekintza batengatik, ihes egin zuen Lapurdira: irratian Aberri Eguna zela eta "Gora Euzkadi askatuta!" oihukatu zuen. Askorentzat pozgarria izan bazen ere, etxekoentzat gogorra izan zen. Polizia etorri zitzaion bila eta kartzelara eraman zuten.

7. Polizia Joxe Joakinen bila etorri zenekoa

- **Erref**: DON-193/014
- **Iraupena**: 0:05:14. **Hasi**: 00:24:59. **Bukatu**: 00:30:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Bere anaia Joxe Joakinek irratia zeukan etxean, beste herrialde batzuetako irratizaleekin hitz egiteko. Polizia anaiaren bila etorri zenean, hari abisua eman zion Miren Jonek eta ihes egitea lortu zuen Jose Joakinek. Ordukoa kontatzen du.

8. Joxe Joakin Lapurditik Parisera

- **Erref**: DON-193/015
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:30:13. **Bukatu**: 00:33:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Txalupetan diru-truke iheslariei laguntzen zienik bazegoen. Lapurdira iritsi zen bere anai Joxe Joakin. Hendaian bisita egin zioten. Parisera joan zen eta ingeniari ikasketak egin zituen.

9. Eguneroko janaria gerra ostean

- **Erref**: DON-193/016
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:33:29. **Bukatu**: 00:34:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Ama oso elizkoia zen. Egunerokoan jaten zutena azaltzen du.

10. Umetan Batzokira joaten zen

- **Erref**: DON-194/002
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:00:20. **Bukatu**: 00:01:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Umetan Batzokira joaten zen. Poxpolin jantzia erabiltzen zuen. Bere izeba-osaben etxea zen Batzokia.

11. Anaia Joxe Joakin aitaren hiletan

- **Erref**: DON-194/004
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:02:37. **Bukatu**: 00:05:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bere anaia Joxe Joakin Paristik etxeratu egin zen, aitaren hiletarako. Gero ez zuten gehiago ikusi.

12. "Euskadi irratia" Venezuelatik

- **Erref**: DON-194/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:08:50. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Bere anaia Joxe Joakin telekomunikazio ingeniaria zen eta lan asko izan zuen Venezuelan. "Euskadi irratia" sortu zuen han eta iraunarazi ere bai.

13. Loren Arrillaga, iheslarien laguntzaile

- **Erref**: DON-194/017
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:21:18. **Bukatu**: 00:24:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Loren Arrillaga aktibista zela kontatzen du; iheslariei laguntzen zien. Erresistentziakoa zen. Bere anaiak ere antzera ibiltzen ziren. Sistiagatarren familia kartzelaren ondoan bizi zen eta laguntza eskaintzen zieten presoen senideei.

14. Misiolari estimatua

- **Erref**: DON-194/020
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:27:58. **Bukatu**: 00:29:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Oso estimatua izan zen misiolari moduan. Gauza asko egin zituen. Lehenbiziko destinoa Avilan izan zuen. Hango bizipenak kontatzen ditu.

15. Kazetaritzarako sena

- **Erref**: DON-194/024
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:30:18. **Bukatu**: 00:33:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Kazetari jaio egin zela uste du. Gasteizko gogo-jardunen etxeko zuzendari jarri zuten. Formakuntza etxea ireki zuten Salamancan. Bileretako aktak jasotzen zituen eta zoriondu egiten zuten.

16. "Vida Nueva" aldizkarian lanean

- **Erref**: DON-194/026
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:34:04. **Bukatu**: 00:35:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
"Vida Nueva" aldizkarian aritu zen Madrilen, eta han ikasi zuen erredakzio bat zer zen. Ondoren, kazetaritza ikasketak egin zituen, ahal izan zuen moduan.

17. Kazetaritzako ikasketetako azken azterketa

- **Erref**: DON-194/028
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:36:45. **Bukatu**: 00:38:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Kazetaritzako praktikak "La Gaceta del Norte" egunkarian egin zituen. Anekdota bat kontatzen du: kazetari titulua hartzerakoan, azken azterketan, emaitzen zerrendan lehenbizikoa Mariano Ferrer izan zen eta azkenekoa Miren Jone.

18. Rikardo Alberdirekin "Talita Kumi" eskuorriak egiten

- **Erref**: DON-194/030
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:38:43. **Bukatu**: 00:43:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Kazetari titulua atera zuenean, Donostian lan egin nahiko lukeela esan zien misiolari sekularrei. Ordurako, Euskal Herrian giro gogorra zegoela konturatuta zegoen eta misiolaritza uztea erabaki zuen. Rikardo Alberdi ezagutu zuen, zerbitzu eta justizia sozialen gaietan liderra, eskola sozialak sortu zituena. Harekin hasi zen lanean eta idatzi egiten zuen. Neska gazteentzako "Talita kumi" izeneko eskuorriak egin zituen. Zeruko Argiatik eskaintza egin zioten eta Rikardok bultzatuta haraxe joan zen.

19. Zeruko Argiako martxa, bera hasi zenean

- **Erref**: DON-194/031
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:43:04. **Bukatu**: 00:45:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Zeruko Argian dena zegoen egiteko. Bi fraide aritzen ziren lanean. Hamabi-hamalau orrialdeko aldizkaria egin zuten. Denak boluntarioak ziren. Inprenta Iruñean zegoen. Lehenengo urte haietan jende asko pasatu zela dio: Lekuona, Oteiza...

20. Hatxearekin gorabeherak Zeruko Argian

- **Erref**: DON-194/033
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:45:33. **Bukatu**: 00:47:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Salbador Garmendiak Iparraldeko euskalkiak ezagutzen zituen eta lan ederrak egin zituela kontatzen du. "H"arekin zer egin eztabaidan aritu ziren eta erabakia hartzea tokatu zitzaion berari. Don Manuel Lekuonari aholkua eskatu zion eta hark hatxearen aldeko iritzia eman zion.

21. Zeruko Argiatik Amatiñori egindako eskaintza

- **Erref**: DON-194/034
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:47:35. **Bukatu**: 00:50:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Zeruko Argian egin behar izaten zituen lanak azaltzen ditu. Edorta Kortadirekin batera Amatiñorengana joan zen, gehiago idazteko eskatzeko, oso ona iruditzen baitzitzaion. Anekdota bat kontatzen du.

22. Zeruko Argiako bilerak eta kideak

- **Erref**: DON-194/035
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:50:28. **Bukatu**: 00:52:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Kafea hartuz, astelehenetan bilera egiten zuten, aldizkariko edukiak zehazteko. Zeruko Argiako orduko kideak aipatzen ditu.

23. Jose Maria Setienen prentsa arduradun

- **Erref**: DON-194/042
- **Iraupena**: 0:04:48. **Hasi**: 01:09:12. **Bukatu**: 01:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Jose Maria Setien gotzainaren idazkariak, Miren Joneri pasatzen zizkion kexaz deitzen zutenen deiak. Jende askok deitzen zuen. Ez zuen dirurik kobratzen lan horregatik.

24. Deia egunkariko lankideak eta zereginak

- **Erref**: DON-194/043
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 01:14:00. **Bukatu**: 01:17:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Deia egunkariaz oso oroitzapen ona dauka. Zuzendaria Gabilondo zen. Iñaki Gabilondoren izena baliatzen zuten zuzendari moduan Zeruko Argian Miren Joneren aurretik. Deiako lankideei buruz hitz egiten du. Eugenio Ibarzabalek "Garaia" sortu zuen eta hor ere aritu zen lanean, frantsesetik gaztelerarako itzulpenak eginez.

25. "Juan Olalde" ezizenaren jatorria

- **Erref**: DON-194/045
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 01:18:02. **Bukatu**: 01:23:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
"Juan Olalde" bere kaleko dendari baten izena zen. Dendariarekin izan zuten harremana kontatzen du, asko lagundu ziela. Garairik gogorrenetan zer jaten zuten kontatzen du. Haren izenarekin sinatzen zituen iritzi artikuluak.

26. Baserriren "Nere bordatxotik" atala

- **Erref**: DON-194/048
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:28:38. **Bukatu**: 01:30:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Basarriren "Nere bordatxotik" izeneko atalaren berri ematen du. Zeruko Argiatik jende asko pasatzen zen.

27. Isunak Zeruko Argiari

- **Erref**: DON-194/052
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 01:36:44. **Bukatu**: 01:38:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Zentsura pasa behar izaten zuen Zeruko Argiak. Isunak jarri zizkieten "Batzokia" eta "naziotasuna" hitzengatik. Harpidedunek dirua ematen zuten isunak ordaintzeko.

28. Aitzindaria euskarazko kazetaritzan

- **Erref**: DON-194/055
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:42:01. **Bukatu**: 01:43:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Lehenengo emakumea izan zen euskarazko kazetaritzan tituluarekin lan egiten. Gaztelerazkoak baziren ordurako.

29. Dirulaguntzarik ez prentsaren elkartetik

- **Erref**: DON-194/060
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 01:47:35. **Bukatu**: 01:49:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Garai batean "Asociacion de la prensa" izeneko prentsako elkartean ibili zen baina euskaraz idazten zutelako, ez zuten aukerarik izaten dirurik jasotzeko.

30. Lanean emakumea izanda ere, berdin

- **Erref**: DON-194/063
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:54:28. **Bukatu**: 01:55:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Ez du sentitu emakume izatearren lanean desberdintasunik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-04

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com